

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko uztaila | 011. zenbakia | 1,50€



PIRINIOAK

Aire korronteen gidatutako hegaldia

HEGOAFRIKA | ISLANDIA | NIKARAGUA | KARIBE | DOLOMITAK | EGIPTO

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz: -en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektroniko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruñ distribution & services, S.L. ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barmian jasotako datu pertsonalak Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruñ distribution & services SL ren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herriar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 011

2022ko uztaila

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 160.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Oriol CLAVERA

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herriar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio





6 JOKULSARLONEKO GLAZIARRAK Islandia hegoaldean, Skaftafell Parke Nazionalaz harago, glaziar aintzirak Ring Road-en beraren oinetan atsedean hartzen du. Alde batean, itsasoa. Bestean, urrunean, izotzaren aurrealde boteretsu eta zuria. Eta erdian, ur zabalgune barea, dozenaka iceberg flotatzen daudela.



22 VOLCANO BOARDING

Nikaraguako Cerro Negro sumendiaren magaleko hondarretan “surfean” aritzeko aukera ematen du kirol honek.


26 HEGOAFRIKAKO TRENA

Pretoriatik Lurmutur Hiriraino joaten da Rovos konpainiako trena, ibilbide desberdinak eskainiz bakoitzaren gustura egokituta.



34 DOLOMITETAKO HERRIAK

Bormio eta Cortina d'Ampezzo herri txikiak dira, baina mendien alboan egonda, turista asko erakartzen dute.



42 SAN MARTIN IRLA Karibeko altxorretako bat da Saint Martin edo Sint Maarten; erdibituta dagoen uharte ederrak itsasoa eta oihana ditu.



4 **BEGIRADA** Saqqarako nekropoliko momiak. 50 **ARTE KLASIKOA GUREAN** Bilboko Berreginen Museoaren distira. 54 **BERTATIK BERTARA: EGIN PLANAK!** Gastronomia eta ardo jardunaldiak Oionen, udako Hatortxu Rock berezia, Errobi festibala Itsasun, Donostiako Musika Hamabostaldia. 54 **LIBURUA** Munduko olaturik onenak eta surflari bidaiarientzako aholkuak.



SAQQARA

Harribitxi arkeologiko gehiago

Saqqarako nekropolian, Kairoko hegoaldean, momiak dituzten 250 sarkofago eta brontzezko 150 estatua aurkitu dituela jakinarazi berri du Egiptok. Azkenaldian eskualdean egindako aurkikuntzarik garrantzitsuenetakoa omen da.

Saqqarako gune arkeologikoa Djeser faraoiaren piramide mailakatu famatuagatik ezagunak diren Gizako piramide ezagunetatik 15 kilometrorra dago. K. a. 2700 urtean eraiki zuen Imhotep-ek, munduko arkitekto zaharrenetakotzat jotzen denak.

Hain zuzen ere, bertan aurkitutako 150 estatuen artean, Imhotep arkitekto, bisir eta medikuaren estatua bat dago. Harri landuzko eraikuntzaren asmatzailea izan omen zen Imhotep, antzinako munduan «arkitektura irauli» omen zuena, Egiptoko Antzinako Gauzen Kontseilu Goreneko zuzendari Mostafa Waziri-ren hitzetan. Wazirik berak ziurtatu du Imhotepen hilobia aurkitzea dela misio arkeologikoaren helburu nagusietako bat.

Imhotepen estatuaz gain, brontzezko beste batzuk aurkitu dituzte, Egiptoko panteoiko jainkoak irudikatzen dituztenak: Osiris, Isis, Hathor, Amon Min, Nefertum eta Anubis. Eta, horrez gain, barruan momiak dituzten zurezko 250 sarkofago ere agertu dira.

Horietako batean, papiro ukigabe eta zigilatu bat aurkitu zuten arkeologoek eta Kairoko egiptoar museoko laborategira bidali zuten berehala, zaharberritu eta azter zezaten. Bederatzi metro inguruko luzera du eta baliteke Hildakoen Liburuko kapituluak biltzea.

2021eko urtarrilean altxor arkeologiko berriak aurkitu zituzten Saqqaran; horien artean, 3.000 urtetik gorako Inperio Berriko 50 sarkofago. Agintarien esanetan, aurkikuntza horiek guztiek garai horretako «historia berridazten» lagunduko dute. Baita turismoa berpiztu ere. Khaled DESOUKI | STF



JOKULSARLON

Zuria eta urdina «on the rocks»

Testua eta argazkia: **Xabier BAÑUELOS**





Nunatak deiturikoak, izotz artean ageriz; iparralde basati eta hotzaren parean harresi itxurako paretak dituzten glaziarrek; askatu ondoren eta itsasoraino arrastatuak izan aurretik urmaelean bizi diren icebergak; fokak izotz-geruzan atsedenean edota janari bila murgiltzen; anil bizi kolorea, zurien, gardenkien eta errautsa duten zerrenden artean; itsas hegaztiak beren kumeak defendatzen; diamante erraldoiak harea beltzezko hondartzen gainean... Jokulsarlon da, munduko glaziar aintzira politenetako bat.

Badira lehen begiratutik liluratzen gaituzten paisaiak. Maitemintze moduko hori are biziagoa da es-tetika liluragarriari indar kreatzailea batzen zaionean, dela gizakiak sortuta dela naturak era-ginda. Eta bitxia baino bitxiagoa da bi sortze mota horiek era harmoniatsu eta basatian bat eginda gertatzen direnean. Gure aurrean agertzen denean, naturaren xarma bete-betea iruditzen zaigu. Alabaina, bere edertasun sinesgaitz hori, neurri handi batean, gizakiaren esku-hartzearen emaitza da.

Islandia hegoaldean, Skaftafell Parke Nazionalaz harago, glaziar aintzirak Ring Road-en beraren oinetan atsedean hartzen du, Skeithararsandur-eko sedimentu beltzen ordoki izugarri handia zeharkatu ostean. Alde batean, itsasoa. Bestean, urrunean, izotzaren aurrealde boteretsu eta zuria. Eta erdian, ur zabalgune barea, dozenaka iceberg flotatzen daudela. Izotz-puskak, glaziarretik bereiziak, dantza geldia eta hautemanezinean jitoan daude, era anarkikoan. Jitoan dauden txalupak dirudite, denborak argiaren konpasean kulunkatuko balitu bezala.

URMAEL BATEN JAIOTZA Islandiarrek ez diete izen irudimentsurik jar-tzen beren elementu geografikoei. Hala, Jokulsarlon-ek "glaziar aintzira" esan nahi du. Breitharmerkurjokul ibai izoztuan du sorburua; ibai hori Vatnajokul glaziarren hegoaldeko adarra da. Vatnajokul herrialdearen





Islandiako edertasuna detailez beteta dago. Izotzak askotariko forma eta koloreak izan ditzakeela ohartuko da bisitaria.



JOKULSARLON ZURIA ETA URDINA «ON THE ROCKS»





%8 estaltzen duen izotz-kasko edo kasko glaziarra da, eta lau puntu kardialetara zabaltzen ditu besoak, olagarro bat balitz bezala.

XX. mendeko 30eko hamarkadaren hondarrean, Breitharmerkurjokul-ek olatueta isurtzen zuen zuzenean bere masa solido eta hotza. Orduz gerotik, ordea, glaziarra ia hamar kilometro atzera egin eta egungo aintzira sortu du. Lurraren berotzeak eragiten du glaziarren atzeratzea eta horren beste adibide bat baino ez da Islandiako hau. Eta elementu geologikoek etorkizunean izango duten eboluzioaren arabera, gerta liteke gaur egun barnealdeko urmaela den hau badia bihurtzea.

Paradoxikoa dena da ingurumenean ondorio kezagarria duen efektu hori paisajistikoki gertakizun txalogarria dela. Izan ere, eszenatoki irekia zoragarria da; bertaratzen garen aldiro harrituta uzten gaituen eszenatokia da, antzezleak berberak izan arren antzezpena beti desberdina delako. Egunak igaro ahala aldatzen da, eta askoz ere gehiago, urtaroak igarotzean.

Icebergen kopurua, tamaina eta formak aldatzen dira; batzuk, gazteenak, angelu eta profil lerrozuzenekoak dira; beste batzuek, elementuekin denbora luzean bakarrik bizi izan direnek, kurba leun eta sentsualak dituzte. 1.000 urte baino gehiagoko izotz blokeak dira; ur puruko izotza, trinkoa, gogorra, gardena eta dentsitate handikoa; puska txikitan zatituta *highball* edalontzian edatea gustuko dutenentzat gozamina izango litzateke.

Eta kromatismoa aldatzen da. Iceberg gehienak irmo ageri dira, albaz jantzirik, beren boterea gogoraziz. Askok azala belztuta ageri dute, morrenek arrastatutako errauts bolkanikoengatik. Beste batzuek, beren jatorrizko oreka galdu eta alderantzikatuta daudenez, akuamarina eta turkesaren arteko milaka tonu dituzte, baita anila ere, urdin bizi eta garbia, beste mundu batekoa dirudiena.

Baina badira kolore gehiago. Hodei ilunen gris opakoak elur gainean erortzen; udako egun argitsu amaiezinetako urre koloreak dirdiran eguzkia etzatean; edo uharteko goraguneen horizontearen soslai arrosaz tindatuta neguko egunsentietako argitasun herabeen.

Urertzean pasieran gabilitza, gure hatzak dardarazten dituen ur izoztua laztanduz, eta inguruko muinoetara igotzen gara. Horietatik begizta dezakegu ikuskizuna bere dimentsio osoan, Artikoaren mugetako akuarela-ren panoramika osoa. Baina, batik bat, nabigatzen gabilitza, gabarra itxura duen ibilgailu anfibio batean.

Eta aintziran sartu gara. Ispilu likidoa atera dugu kanal labirintikoen artean, albo banatan eskultura izoztu apatatsu bikainak daudela eta behin eta berriro nunatak-ak agertzen direla; horien artetik irmo agertzen da Hvannadalshnjukur-en irudi basatia, Islandiako gailur garaiena, 2.110 metrokoa.

URMAELETIK HONDARTZARA Jokulsarlon-en berezitasunetako bat da ez dela aintzira itxia. Hegoaldeko urertzean kanal baten bitartez irekia dago, itsasoarekin komunikatuta; horra isurtzen ditu bere urak eta iceber-

gak. Baina irekitako gunek hori txikia da, estua eta sakonera gutxikoa, eta, hortaz, icebergak ezin dira bertatik igaro beren tamaina murriztu arte. Bost urteko itxaronaldia izan ohi da, batez beste. Behin icebergak bolumen egokia lortzen duenean, gatibualdiko bosturteko hori atzean utzi eta ozeanoko askatasunera ihes egiten du. Askok, ordea, ez dute helburua betetzea lortzen. Olatuek eta korronteek hondartzaraino arrastatzen dituzte eta bertan betiko geratzen dira.

Hori ere zorioneko gertakizuna da. Hondartzan abandonatuta, izotz pus-
kak –batzuk tamaina handikoak oraindik–, azabatze koloreko hondar gai-
nean etzanda daude, mirari onirikoa osatuz. Ez, ez da zaila gure irudimena
susperu eta mitologiekin amets egitea. Eta, hala, adibidez, Loki ikusiko
dugu, isilean Folkvangr jauregian sartzen, Freya jainkosari bere lepokoa
lapurtzeko; Brisingamen lepokoa, ordea, ez da urrez eta jadez eginga, gemaz
baizik.

Ihesi doala, lepokoak esku artetik ihes egin dio eta Asgrad-etik hareatza
honetaraino erori da; milaka zatitan hautsi eta diamantedun bolatxoak zo-
ruan sakabanatuta geratu dira. Horien ingeradek, torneatuak batzuk izoz-
tuak besteak, argian distira egiten dute; ezti koloreko distirak, zeruaren
urdin argikoak eta albinoak. Oin azpian dugun zorua itzultzeko desegiten
diren diamantez betetako hondartza da.

Diotenez, Lokik foka bihurtuta ostu zuen lepokoa. Akaso, oraindik hemen
egongo da, pinipedio koloniako partaide bihurtuta, aintziraren bazterretan
umatzen, ehizatzen eta atsedean hartzen. Eta ez dira horiek bertan ikusiko
ditugun animalia bakarrak. Izan ere, udan etorri gero, tentuz ibili beharko
dugu bertako atun-txorien erasoak ekiditeko. Zoruan hazten dituzte ku-
meak eta horiengana apropos edo nahi gabe gehiegi hurbiltzen bagara,
gure aurka etorriko dira, zalantzarik egin gabe.

Antzekoa gertatzen da marikaka hegaztiekin. Horiek, gainera, handiagoak
eta erasokorragoak dira eta mokokada bortitzagoa dute. Daphne du Mau-
rier-ek kostalde hau bisitatuko ote zuen Hitchcock-ek zinemara eraman
zuen "Txoriak" eleberria idatzi aurretik? Ez dakigu, baina baliteke hala iza-
tea.

Hegaztiak kumeak hazten lasai utzi eta paisaiara itzuliko gara. Gutxi gora-
behera hemendik ordubetera dagoen Hofn-era abiatu aurretik, inguratzen
gaituen edertasuna behatuko dugu berriz, zur eta lur. Naturak artea imita-
tzen badu, gaur aire libreko paisaia inpresionistaz mozkortzera gonbida-
tzen gaitu. Artea bada natura imitatzen duena, ez zaio faltako ez inspirazio
ez ametsik espatula edo zizela sartzeko. Ez gaitu harritzen ere Lara Croft,
Beowulf, Batman eta, birritan, James Bond bera bertatik igaro izanak.

"Die Another Day" filmatzeko kanala itxi zuten, ur gazia sartu eta aintzira
izoztu ez zedin. Bertan izan zuten pertsekuzio eroa Brosnan-en Aston Mar-
tin Vanquish-ak eta Rick Yune-ren Kaguar XKR-ak. Baina gatozen erreali-
tatera, amaiera ederra eskatzen baitu, joan den mende hasierako turista
ingeles sibiratik imitatuz, zeintzuek beren likore botila hartuta glaziarren
oinetara iritsi eta *whisky on the rocks* perfektua hartzen zuten.

GIDA PRAKTIKOA

NOIZ JOAN

Aintzira oso desberdina da udan
edo neguan. Udan errazagoa da
eguraldi ona izan eta nabigatu
ahal izatea. Neguan koloreak
izugarriak dira eta aurora
borealaren azpian ikusteko
aukera dago.

ZENBAT DENBORA

Gutxienez lau ordu behar dira
aintziran nabigatzeko, urertzean
ibiltzeko eta hondartzan paseo
bat egiteko.

NABIGAZIOA

Erreserbatzea komeni da.
Zenbait txanda daude egunean,
goizez eta arratsaldez.
Informazio guinea. Aintziraren
ondoan dago eta jatetxe txiki bat,
komunak eta oroigarri denda ere
baditu.

GERTUKO BISITAK

Denbora izanda joanez gero,
gertu dauden Fjallsarlón eta
Breiðarlón glaziar aintzirak
bisitatu beharrekoak dira.

Pirinioak globoan

Testua eta argazkiak: **Oriol CLAVERA**







Jules Vernek hegaldi bakarra egin omen zuen globo aerostatikoan bizitza osoan. Hogeita lau minutu iraun zuen bidaia hark, eta nahikoa izan zuen harekin lehen abentura- eleberria idazteko, 1863an, “Cinq semaines en ballon” izenekoa. Gure abenturak, aldiz, hiru ordu iraungo du. Finean, Pirinioak deskubritzeko beste modu bat da.

Igandeko 09:45ak dira eta 4.000 metrotik gorako altueran gaude. Atzo elurra egin zuen eta gaur urdinak dena bete du. Aldeko haizeekin, iragarpen meteorologikoa egokia da. Gure azpian, alfonbra zuri zimur bat. Eta eskularruak erantzi ditugu. Inbertsio termikoa da. Agian, sugar ugariak lagungarriak dira. Izan ere, nabaria da beroa, suzko mihiek miraria ahalbidetzen dutenean, 210.000 oin kubiko aire berotuta, hemen goian nagusi den isiltasuna hausten duen orroaren ondoren. Miquelek bi egun lehenago deitu zidan: «Nola daukazu igandea? Eguraldi iragarpena oso ona da». Galdutako aukera gutxi batzuen ondoren, ez zegoen beste aukerarik. «Non geratuko gara?».

[7:00etan] Vielhan gaude, Kataluniako Pirinioetan. Bederatzi gara. Miquelen azalpenak entzun ondoren, azken zurrutada bat kafeei, nerbioak edo hotza baretzeko.

[7:45] -5°C-an gaude eta eskuak izoztu egiten dira eskularruak kentzen baditugu. Hasi da Pep eta Miquelentzat ia errituala dena. Saskia etzanda dagoela, ainguraleku eta kable guztiak lotu behar dira; hegaldia hasitakoan hura belatik zintzilikatuko dutenak, alegia. Haizagailu baten eta erregailuek isurtzen duten suaren beroaren laguntzaz, bolumena hartu du Gaussacetik hurbil dagoen eremu batean luzatutako oihal handiak. Maitek eta Aurelik oihalaren ahoari eutsi diote airea sar dadin, eta Pep eta Miquelek kableak eta zintak ondo jarri dituzte barrualdean. Marina, Lluís, Joan eta Mariak tripulazioa osatzen dute, eta haien esanei jarraitu diete. Lluisek,



bien bitartean, argazkiak egin dizkio, iragarritako eguzkiaren lehen printzekin, zuritik laranja egin duen Montcorbison (2.173 metro) mendiaren atzean egunari agur esan dion ilargiari.


BERROGEITA HAMAR METRORA [8:47] Denok igo gara saskira, Pep izan ezik. Belaren barrualdearen eta kanpoaldearen arteko aldea 80°C-ra iritsi da (horixe behar du globo batek hegan egiteko). Kamera geldoan bezala, erre-marjinarik ez dagoela dirudi. Baina bi putz eginda, lurretik 50 metrora gaude. Vielha, urdinez, txikiago ageri da, haran itzaltsu batean, eta eguzkiak «bon dia» esan digu masailetan.


[9:28] Aigüestortes eta San Maurizioko Parke Nazionaleko mendi gailur altuen gainetik, gure azpian Pirinioa mugitzen ari dela dirudi. Grabitate eta mugimendurik ezaren sentsazioak eragindako gezurra agerian geratu da pinu beltzeko basoak, gailur harritsuak eta haranak pitzatzen dituzten erreastoak nola pasatzen diren ikusita.

Haizearekin batera mugitzen ari gara, haren abiadura berean. Urtebete-tze-festa batean haur baten eskutik ihes egindako globo baten moduan, pastelaren kandlei putz egin ondoren hegan egiteko desioa beteta. Eta, oraindik ere, lurra hor behean ez dela mugitzen ari ziur ez gauden arren, GPS batek baieztatu digu. Ez, duela urte batzuk «laino handiko egun batean Pirinioaurretik abiatu ginen orduko hartan» bezala, esan du Miquelek. «Lainoa gaingitu ondoren, behe-laino itsaso izugarria genuen azpian, gure begiradak hartzen zuen guztia estaltzen zuena, Pirinioa bera izan ezik, iparraldean. Jaisteko orduan, eta erreskate taldea – lurreratzeko puntuan jasotzen gaituena – 30 bat kilometro hegoaldera bidali ondoren, uste baikenuen distantzia hori egin genuela, berriro lainoa zeharkatu eta aieratzeko leku berean ginen! Bera ari zen mugitzen, eta ez gu. Hori orain pentsaezina da; une oro dakigu zehatz-mehatz non gauden».

34 URTE HEGAN Hori da Miquel Messeguék gogoan dituen anekdota ugarietako bat, 1988. urte urrun hartatik 34 urtez hegan egin ondoren, eta gaztetxo batzuk zirela, Àngel Aguirrerekin batera Globus Kontiki sortu zuenetik. Lleidako Pirinioetan abentura-kirolen –puenting, rafting, barrankismoa – hastapenetan urte batzuk eman ondoren, zerbait desberdina eskaini nahi zutela konturatu ziren. Eta egun batean, etxeko sukaldean elkartuta, hormatik zintzilik zegoen egutegiko globo aerostatikoaren argazkiari erreparatu zioten. «Hasiera ez oso glamurosoa», diote Miquel eta Àngelek txantxetan. Curriculumean zeharkaldi hauek dituzte: Amazonia, Sahara, Kilimanjaro, Aconcagua, Groenlandia, Laponia eta Svalbard –hiru mila metroko altueran eta «eternitate bat iruditu zitzaizkigun» bi minutuko eguzki-eklipse batean; «bizitako esperientzia bikainetako bat»–.

Baina itzul gaitezen Pirinioetara, 4.696 metroko altitudetan, gure hegaldian lortuko dugun maximoan, 40 bat kilometro egin ondoren. Hemendik, mapa honen gainean, eskala naturalean, honako hauek kokatu ditugu: Aneto (3.403), Monte Perdido (3.355), Turbón (2.492), mendebaldean; ekialdean, Pla de Beret eta Port de la Bonaigua –Val d'Aran eta Pallars Sobirà lotzen dituen–, Pica d'Estats (3.143), Encantats-eko bi orratzak (2.743 eta 2.748) –parkearen ikur–, Montsent de Pallars (2.883), Pedraforca urruna





**Globoan 4.696 metrora
igo dira, eta bertan,
haizeen korronteari
segika, ikusi dituzte
Pirinioak parean eta
herriak azpian.**



(2.506); eta hegoaldera, Congost de Montrebei eta, txiki-txiki, Montserrat, Montseny, Serra de Prades... Eta herriak: Arties, Vilac edo Salardú edo Boí eta Taüll, Unescok Gizateriaren Ondare izendatutako erromanikoa gordetzen dutenak.

Altuera honetan hegan egitea ez da kapritxoa. Globoek ez dute bolanterik, eta pilotuak duen kontrol bakarra –altuera honetan oxigenoa eramatera derrigortuta dago– globoaren barrualdea berotuz igotzea eta jaistea da. Gero, horizontalean egiten diren desplazamenduak topatutako haizeei esker lortzen dira. Eta honelako hegaldi batean, goi-mendiko orografia honekin, arriskua haize birakariak izaten dira: haizeak mendi bat gainditzen duenean sortzen diren atzerakada-ındarrak. Altuera eta, beraz gailurretatik distantzia, nahikoa hartuko ez balitz, haize horiek amildu ahal izango gintzukete mendiaren haizebearen hegalaena kontra.

ARKAKUSO URDURIK BEZALA [10:15] Gizakiaren aztarnak ezer gutxi dirudi hemendik. Eskiatzeko pista, auto ilarak parkingetan eta eskiatzailleen puntu beltzak, arkakuso urdurien antzera. Erlauntza gisa eraikitako apartamentuak. Mendiko errepide bihurrikariak. Escalesko urtegia, Noguera Ribagorçana ibaia preso duen presarekin, etekin ekonomikoaren araberak askatzen. Beste aztarna batzuek beste paisaia bat osatzen dute: larreak eta soroak terrazetan, abereentzako pleta bat edo udan, agian, artzainen bati edo txangozaleei babesa ematen dien txabola bat. Eta natura, tolesgabea dirudiena, jostailuzkoa balitz bezala. Maldak, ibaiak, arroak, elurretan janari bila dabilen azeriaren baten arrastoek markatutako bideak.

Handi eta ñimiño sentitzen da bat aldi berean. Eta pribilegiatua. Eta, hiru ordu hauetan, arazoak desagertu egin direla dirudi. Harik eta, paisaia zuritik urrun, Pallars Jussà eskualdean, Sant Gervásako labarrek ezkutatu eta babestutako "La Terreta"-ren gainean, altuera galtzen hasi garen arte. Hemen lurak, negu amaierako tonu marroi eta gris horiekin, milaka urtetan naturak eta gizakiak landutako zahartzaroko larru zimurtua dirudi. Mugako lurraldea da, Kataluniako Printzerria eta administratiboki Aragoikoa den Franja de Ponent banatzen dituen Noguera Ribagorçanaren ibilerak eragindako mugakoa, baina ez bere herrietako jendea: Els Masos de Tamúrcia, Espluga de Serra, Castellet, Sapeira, Espluga Freda, Escarlà, Tercui, Espills, Sobdelrecastell, Cornudella, Sopeira, Berganui.

LURRERATZEKO LEKUA Jaitsiera lasaia da. Miquelek lurra arakatu du. Lurreratze leku egokia bilatu behar du. Linea elektriko batek, N-230 errepideak, etxalde batek bide baten amaieran eta soroek ez dute erraz jartzen. Baina basamortu, oihan, tontor altu eta Ipar Poloaren gainean ibili den norbaiti ez zaizkio hankak dardarka jartzen. Berrogeita hamar metro, berrogeita bost, berrogei, erabaki du lekua, hogeita hamar, hogeia, hanka tolestuak, hamabost, hamar, lurreratze norabideari bizkarra emanda, bost, gasa, lurra, gasa, lurra. Batzuk jauzi batez jaitsi dira eta saskiari eutsi diote lurretik metro erdira zintzilik dagoen bide asfaltaturantz bideratzeko: han dugu zain Pep atoiarekin. Eta, bela egokitzen den bitartean, zelai baten gainean hustuz, gure barruko zerbait ere husten ari dela dirudi. Berri ere oinak lurrean, desira, irudimenezko pastel baten kandlei putz egin ondoren, amaitu dela dirudi. [11:51]

«Volcano boarding»

adrenalina aldapan beheara



Testua: Ane IPARRAGIRRE Argazkiak: Getty eta Oswaldo RIVAS/AFP

Gero eta turista gehiago igotzen dira Cerro Negro sumendiaren gailurrera, helburu bakar batekin: Nikaraguako mendigune ikusgarriaren magalean behera ziztu bizian irristatzea, ohol baten gainean. «Volcano boarding» esaten diote. Adrenalina hutsa omen da.





Inguruko beste sumendi batzuekin alderatuta, Cerro Negro, 728 metroekin, tontor txikia da. Ez du fumarolarik isurtzen, eta orain arte izan dituen 23 erupzioek errautsezko eta hondarrezko geruza ilunez estali dute gainazala, azken urteotan *volcano boarding*-a gustuko dutenen elkargune bihurtu dena. Tontorreraino igo eta mendi-hegaletik abiadura handian irristatzen dira ohol baten gainean.

1992ko erupzioak, orain arteko bortitzenetakoa, sumenditik gertuen dagoen herrixka, Lechecua-gos, errautsez eta hondarrez estali zuen. Azken astindu handia 1999koa izan zen; beraz, bertakoen kalkuluen arabera, «berriro tokatzen zaio laster». Hala ere, uxatu beharrean, mehatxuak bereziki erakartzen ditu turistak.

«Jakin badakizu sumendi aktibo batean zaudela, baina, hala ere, gailurrean ibil zaitezke. Oso egoera kurioa da. Irriatzea azkarra da. Oso arriskutsua da, bai, baina adrenalina asko sortzen du». 27 urteko Anna Müller turista alemanaren hitzak dira. Prest dago bere burua berri ere maldan behera botatzeko.

Jaitsiera benetan azkarra da. Aldapan lerro zuzena marrazten du, atzean hautsezko ubera utziz. Bera bezala, Alemaniako, Herbehereetako eta Ameriketako Estatu Batuetako turistak sumendira igotzen dira 40 segundoz adrenalina gozatzeko. Hori da, gutxi gorabehera, jaitsierak irauten duena. «Azken eguna balitz bezala bizi behar da bizitza», gehitu du Carina Mora 29 urteko surflari portugaldarrak.

TURISMOA BERRESKURATZEA HELBURU

Cerro Negro, Maribios mendikatean, Sumendien Ibilbidearen parte da, turismo agintariak sortua eta Ozeano Bareko eskualdean aktibo dauden koloso batzuk biltzen dituen. Inurriak bezala, bisitariak kolore desberdinetako taula angeluzuzenak eramaten dituzte, denak ilara bakarrean. Bihurka igotzen den bide batetik doaz, poliki-poliki, *chele* azal zuri eta ile argiko atzeritarren itzulera txalotzen duten herritarrek gidatuta. Emandako pauso bakoitzak errautsa altxatzen du. Atzerriko turisten presentzia

diru-sarrera iturri handia da herriko familientzat. Ondorioz, pandemiaren ondorioak latzak izan dira. Anna Müllerrek ere aitortzen du zaila izan dela pandemian berriro bidaiatzea, batez ere Alemanian ezarritako murrizketengatik. «Hemen [Nikaraguan] dena irekiago dago», azaldu du.

ILARGIAN 2006an sortu omen zen *sandboarding*-a sumendietan; gaur egun, Leonen, dozena bat bidai agentzia daude, gutxienez. Egutero 40 bezero ditu enpresa bakoitzak. «Asko kostatu zen mugimendua berriro itzultzea. Munduan dagoen leku bakarra da, nire ustez, sumendi aktibo batean *boarding*-a egin daitekeena, eta horrek esperientziari plus bat gehitzen dio», adierazi du Lesther Centeno negozioan aitzindari den Bigfoot enpresako gidariak.

Pakete turistikoek zenbait zerbitzu eskaintzen dituzte: muinorako garraioa, babes-jantziak, taulak, irriatze segurua lortzeko jarraibideak... «Onena sentitzen duzuna da: lurrarekin harreman estuan jartzea lortzen duzu, haren beroa sentitzen baituzu. Igoeran esfortzu handia egin behar da, jakina, baina gora iristen zarenean eta gero jaitsi... berriro igo nahi duzu!», azaldu du Mora surflariak.

Metro batzuk harago, aurpegia harea beltzez zipritindua duen Cotte Guy frantziarrak bizitako esperientzia «bikaina» kontatzen ari da, babes-jantzia kentzen duen bitartean. Guy txantxetan ari da eta ilargian dagoen astronauta batekin alderatu du bere burua. Egia esan, inguratzen duen paisaia hareatsua da, harkaitz eta zuloz bete.

Hiru urte eman dituzte ia turistarik gabe abenduan atzerritarrak itzultzen hasi ziren arte. «Benetako kaosa izan da», dio parke bolkanikoa zaintzen duen zentro komunitario bateko kide Matilde Antonio Hernandezek. Sumendiaren magalean kokatutako dozena bat komunitate inguruk harremana dute, zuzenean edo zeharka, turismoarekin. Horretxegatik poztzen dira bertakoak egoera aldatuz doalako. Horietako bat da Enrique Gonzalez. Denetarik egiten du: turistei oholak eraman, fruta banatu, *sandboarding* taulak egin, saldu edo alokatu... Horretxegatik dago pozik orain.





ROVOS TRAIN

Pretoriatik Lurmutur Hirira errailen gainean



Pretoria eta Lurmutur Hiria banatzen dituzten 1.600 kilometro eskasak egiteko nahikoa da hegazkinez bi orduko bidaia laburra egitea. Aldiz, horrela eginez gero, antzinako tren batean bi egunez bidaiatzearen erromantizismoa galduko genuke. Honakoa Rovos Train mitikoan egindako bidaiaren kronika da, atmosfera iradokitzaile eta zinematografikoa bidaide hartuta bizitako abentura ederrarena.

Testua eta argazkiak: **Sergi REBOREDO**



Esperientzia Pretoriako tren geltokian hasten da. Geltokiak 10.000 metro koadroko tailerra ere badu, eta, horri esker, bagoiak nola zaharberritzen dituzten bertatik bertara ikusteko bisita gidatu bat egiteko aukera ere badago. Iraganean baporezko trenez betetako geltoki zaratsua zena Rovos konpainiaren egoitza nagusia da egun. Geltoki arranditsuak, estilo kolonialekoa, ez du bere dotoreziaren izpi txikiena ere galdu. Instalazioak iraganera eramango gaituen trenarekin lotutako museo bat ere badu, semaforoak, trafiko seinaleak edota antzinako bagonetak biltzen dituen. Asmoa Pretoriakoa funtzionamenduan dauden trenen munduko museo handiena bihurtzea da.

Eguerditik aurrera, turisten joan-etorria etengabea da. Tartean daude “Afrikako harribitxian” bidaiatzeko pribilegioa izango duten 40 bidaiariak. Arratsaldeko laurak aldera hasiko dira trenera igotzen, eta, ordu bat geroago, Rovos Train mitikoa martxan jarriko da poliki-poliki kirrinka artean.

Rovosek munduko tren luxuzkoenetako bat izatearen pribilegioa du. Baporezko lokomotorrak iraganeko kontua dira dagoeneko, baina 2016an eskuratutako diezelezko bost lokomotor australiar berriek ez diote bidaiari glamourrik kentzen. DD motakoak dira, 1970ean eraikitakoak Queensland Australiako estatuan ikatza garraiatzeko. Lokomotorrak erosi eta gero, desmuntatu eta piezaz pieza berreraiki zituen Rovosek, trenaren funtzionamendua perfektua izan zedin ordezeko pieza berriak edo espresuki egoikitutakoak erabiliz.



**“Big Hole”
diamante
meategiagatik da
ezaguna
Kimberley. 170.000
metro koadroko
azalera hartzen du
eta gizakiak
munduan sakonen
hondeatutako
zuloa ere bada, 240
metrorekin**

Lokomotorraren atzetik, 19 bagoik osatzen dute konboia eta osotara 72 bi-daiari har ditzake trenak. Bagoi gehienak 1919 eta 1970 artean eraiki ziren eta, ondoren, Pretoriako artisauek zaharberritu zituzten, barnealdeei kutsu koloniala emanez.

Gong soinu batez bidez, 19:30ean, bidaiariei afalordua dela gogorarazi diete; trena Witwatersrand mendilerroko urrezko meategi zaharrak zeharkatzen ari da, Mpumalunga probintzian. Errail gaineko hedonismoa zain dugu afarian; etiketa-jantziz joatea ezinbestekoa da.

Gauean zehar, triki-traka eta kirrinka artean, trenak Transvaal Hegoafrikako eskualde historikoko mendebaldeko arto soroetatik zehar jarraitzen du aurrera, Vaal ibaiaren bidea segituz. Goizean, Kimberley hiriko geltokira heldu da trena. “Big Hole” diamante meategiagatik da ezaguna Kimberley, eta ez da harritzekoa, Afrika osoko ospetsuena baita. Aire zabaleko diamante meategiak 170.000 metro koadroko azalera hartzen du eta gizakiak munduan sakonen hondeatutako zuloa ere bada, 240 metrorekin. 1914an meategia itxi zuten arte, hiru tona diamante erauzi zituzten bertatik.

Oraindik ere posible da urez betetako krater izugarria ikustea, eta, batez ere, eskualdeak diamanteen munduarekin izandako lotura estua azaltzen duen museo bisitatzea. Museoaren ondoko herri zaharrak orain dela mende bateko itxura mantentzen du; zutik daude oraindik egurrezko etxeak, saloia, dendak, banketxea... eta orduko tranbia ere martxan da.



“Diamanteen sukarrak” beste aberastasun iturri agorrezin bati egin dio leku egunotan: “turismoaren sukarra”.

ILUNABARRA AZKEN BAGOITIK Arratsaldeko bostetan tea zerbitzatzen dute trenean. Hori bai, jende gehiena trenaren azken bagoian biltzen da; guztiz irekita dago eta horri esker bidaiako argazkirik onenak egiteko aukera ematen du ilunabarretan, bereziki trenak bira handiak ematen dituenean. Gin-tonic joan-etorria etengabea da, betiere biltong behi haragi sikua lagun; Hegoafrikan oso maitea den zapore biziko mokadua da.

Hurrengo egunean, trena Matjiesfontein herrixkara heldu da, Lurmutur Hiriko azken geltokitik 150 kilometro eskasera. Estetika viktoriarreko herria da Matjiesfontein, eta trenbidea heldu aurretik ez zen existitzen. Logan jaunak sortu zuen trenbideko geltoki gisa 1890ean, bidaiariei trago bat hartu eta pixka bat ibiltzeko aukera eskaintzeko. Negozioa hain bihurtu zen oparoa berehala etxe multzo txiki bat sortu zela bertan.

Gertuko Lord Milner Hotelean jarri ziren Hegoafrikako lehendabiziko komunontziak eta argindarra eta telefonoa izaten lehendabiziko ostatua ere izan zen. Zenbait museok herriaren historia azaltzen dute. Herriko muturretako batean kokatutako Garraioaren Museo bitxian, 1930 eta 1960 arteko automobilen bilduma aipagarria ikus daiteke. Marie Rawdon Museoak, berriz, David Rawdon bildumagileak pilaturiko askotariko objektuak ditu ikusgai.

**Afrika basatiaren
erdian eroso sentitzeko
txoko ugari dago,
luxuzko hotelak barne.**



Jirafa, errinozeroa eta lehoia, euren bizilekuan lasai. Horiek dira safarian ikus daitezkeen animalietako batzuk.

Matjiesfontein atzean utzita, trenak mendebalderantz jarraitzen du bidea zuhaixka eta sastraka artean, ia giza presentziarik gabeko basamortuetan barna; noiz edo noiz ikusten diren haize-orratzak eta herdoildutako nekezaritzako tresnak dira salbuespen bakarra. Karoo goi-ordoki idorra atzean utzi eta mahastiz betetako lurraldera heldu gara. Jakin beharrekoa da Hegoafrikako ardoak, batik bat zuriak, munduko onenen artean daudela.

Cape Flats lautadak aurrez aurre ditugu dagoeneko, baita Lurmutur Hiriko aldirietako lehen auzoak ere. Inguruok zuriak ez ziren herritarren etxe bihurtu ziren ezinbestean aurreko mendeko 50eko hamarkadatik aurrera, apartheid erregimen arrazistak horrela erabakita. Eguzkia ezkutatzen ari da pixkanaka-pixkanaka, eta, bien bitartean, paisaiari botatako begirada bakoitzak nostalgia biziberritzen du, Lurmutur Hiriko geltokian sartzen ari baikara dagoeneko, eta, beraz, bidaia amaitzear baita.

MALA MALA, SAFARIA KRUGER PARKE NAZIONALEAN Luxuzko tren batean egindako bidaia goi mailako safari batekin osatu daiteke Hegoafrikan. Johannesburgotik bertatik charter hegaldiak eskaintzen ditu Federal Airlines konpainiak Mala Mala erreserbara, hau da, Kruger Parke Nazionalaren eta Sabi Sand erreserba pribatuaren artean kokatutako gunera. Angel Gabriel konpainiak ordu eta erdian lotzen ditu Johannesburgotik oso gertu kokatutako Lanseriako aireportua eta Mala Mala.

Kruger Parke Nazionala Hegoafrikako handiena da, ia bi milioi hektareako azalerarekin. “L” forma du eta Afrikako fauna basatiarentzako igarobide natural handiena da egun, Nelson Mandelak berak bultzatutako plan bati



esker. Bene-benetako babeslekua da 147 ugaztun, 500 hegazti, 116 narrasti, 450 zuhaitz eta 1.500 landare espezierentzat.

MASHATU, SAFARIA BOTSWANAN Oraindik ere bidaiarekin aurrera jarraitzeko asmoa dutenek, Mashatu Erreserba Naturala esploratzeko hau-tua egin dezakete, Botswanan. 29.000 hektareako erreserba da eta Botswana ekialdean dago, zehazki, Shase eta Limpopo ibaiek Hegoafrikako mugan bat egiten duen lekuan. Pretoriatik autoz heltzeko aukera egon ba-dago, baina hegaldi motz bat hartzea da praktikoena.

Gune ireki zabalek osatzen dute Mashatu Erreserba, eta, horri esker, espezie basati ugari ikusteko aukera dago bertan. Erreserba zuhaixkez osatutako gune oihantsuek eta Afrikako sabana tipikoek osatzen dute eta elefante, zebra, gepardo, lehoi, bufalo, hiena, jirafa, antilope eta ostruka talde han-dien etxe da. Erreserbak ostatu hartzeko bi gune ere eskaintzen ditu: Main Camp eta Tent Camp. Lehendabizikoa luxuzko egonaldi bat bilatzen dute-nentzako dago pentsatuta, eta, bigarrena, Afrikako landa eremuen erakar-garritasunaren bila ari direnentzako. Hori bai, kanpamentu batean zein bestean bidaiariek konfortaz eta lasaitasunaz gozatzeko moduko lehen mailako instalazioak aurkituko dituzte.

Inguruotan argi kutsadura oso txikia edo ezdeusa da, eta, horri esker, eguz-kia ezkutatu bezain pronto, izarrak agertzen hasten dira zeruan. Gau ba-tzuetan, gainera, elefanteak erreserbako instalazioetatik gertu kokatutako edanleku batera hurbiltzen dira. Zalantzarik gabe, gure gogoan betiko gor-deko ditugun une magikoak dira.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Air France eta KLM konpainiek Johannesburgora zein Lurmutur Hirira hegaldiak eskaintzen dituzte. Air Francek egunero eskaintzen du Paris eta Johannesburgo arteko hegaldi bat. KLMk, berriz, Amsterdam eta Johannesburgo arteko hegaldi bat du egunero. Martxoaren 30era bitarte, Air Francek Lurmutur Hirira astean bost hegaldi eskaintzen ditu; ondoren, astean bi hegaldi. KLMk, berriz, hegaldi bat eguneko.

TRENAREN IBILBIDEAK

Rovos Train konpainiak zazpi ibilbide eskaintzen ditu: Cape Town Journey ibilbideak Pretoria eta Lurmutur Hiria lotzen ditu (2 gau); Durban Safari ibilbideak (3 gau) Pretoria eta Durban lotzen ditu; Golf Safari eta African Golf Collage zirkuituak, aldiz, Hegoafrikan zeharreko bederatzi eguneko bidaiak dira; Victoria Falls ibilbideak Pretoria eta Victoria ur-jauzi ikusgarriak lotzen ditu (2 egun); Namibia Safari bederatzi eguneko zirkuitua da; Rovos Train konpainiaren harribitxia eta munduko tren zeharkaldi ezagunenetakoa Dar es Salaam izenekoa da (14 egun), Lurmutur Hirian hasi eta Tanzaniako Dar es Salaam hirian amaitzen da bidaiia, bidean Hegoafrika, Botswana, Zimbabwe, Zambia eta Tanzania zeharkatuz.

BORMIO-CORTINA D'AMPEZZO

Mendiek hitz egingo balute...







Mendiak eta mendi bailarak gustuko badituzu, hautatu Alpeak eta Dolomitak. Izan oinez, bizikletan edo motorrean, joan Bormio eta Cortina d'Ampezzo herriak ezagutzera, Italian. Ez zara damutuko. Natura ingurune zoragarria da, paradisia kirol aktibitateak egiteko. Paraje haietako edertasunak lehen kolpean bereganatuko zaitu.

Testua eta Argazkiak: **Andoni URBISTONDO**

E

uskal Herrian mendiak sobera ditugu, eta Pirinioetako lehen gailur garaiak ere esku-eskura. Baina ez daukagu Alpeen moduko mendikate handirik. Ezta Dolomitak bezalako eskualde dotorerik ere. Haiek bisitatzeak merezi du? Zalantzarik ez. Gertu ditugu, hegazkinez edo errepidez joan, eta aste pare bateko egonaldia txistu batean pasako zaigu hango paraje zoragarriekin. Bi herri, bi mendi gunek, kokatzeko. Bormio, Lombardia eskualdean, Alpeetan, lehena. Cortina d'Ampezzo, bestea, Dolomitetako hiriburua, Veneto eskualdean.

5.000 biztanle inguruko herri txikiak dira biak, baina turismo gune indartsuak, ostalaritza zerbitzu onekin hornituak. Neguan eta udan bisitari oldea jasotzen dute. Neguan eski gune erraldoiak dituztelako gertu. Udan, eguzkiak mendi eta errepide bideak elurretik eta izotzetik libratzen ditue-nean, mendi edo bizikleta buelta ederrak eman daitezkeelako. Horregatik dira aproposak maiatz bukaera, eta ekaineko lehen hamabostaldia, ez dagoelako beste hilabete batzuetako jendetzarik. Hori bai, aintzat hartu han mendi eta mendate altuak daudela eta elurra edozein egunetan ager daitekeela.

Bormio Alpeetan dago, eta Cortina Dolomitetan. Dolomitak Alpeetako mendigunea dira, baina Dolomitak eta Alpeak erabat ezberdinak dira. Bormio inguruko mendiak askoz garaiagoak dira. Ortles mendiak 3.905 metro ditu, eta Gran Zeburu ezagunak (Konigspitze alemanez) 3.857 metro. Horiek igotzeko eskarmentu handia eduki behar da goi mendietan. Mendi handi horietara iristeko aukera ematen duten mendateak igotzeko, ez hainbeste. Hori bai, prestakuntza fisiko ona eduki behar da Passo dello Stelvio edo Passo Gavia ezagunak bizikletan igotzeko.



**Italiako Giroan
protagonistak
izaten diren
maldak zeharkatu
behar dira
Dolomitetakoko leku
ederretara iristeko**

Zikloturista ororen amets dira bi mendatetzar horiek. Amets, edo amesgaizto... 2.758 metro ditu Stelviok, 2.621 Gaviak, eta malda horietan idatzi dira Italiako Giroko istorio mitikoenetako batzuk. Malda horietan sufritu egiten dute profesionalek, madarikazio batean egin bidea zaletasunagatik igotzen direnek. 25 kilometroko mendateak dira, eta zaila da dozenaka tornante edo 180 graduko bihurgune itxietan penitentzia lortzea. Mendate pankarta ikustean bakarrik agertzen da, zintzurra busti eta mendate inguruko paisaia zurituekin.

Zurituekin diogu, maiatzaren 25ean elurte latza bota zuelako Stelvion. Udaberri bukaeran oso presente eduki behar da eguraldi iragarpena, ezustekoak saiheste aldera. Esan beharrik ere ez, gorputzari astindu latza eman eta gero, jaitsiera luzea zero eta bost gradu arteko tenperaturarekin egin beharra ez dela broma kontua. Bormio leku ezin hobea da bi mendatetarik igotzeko, hoteletik bertatik ekiten baitzaio bi igoerei. Bizikletarik gabe joatea ez da arazo, Bormion bertan bizikleta onak alokatzen dituzten denda ugari baitago.



Turismo leku aproposa ere bada Bormio. Stelvio eta Gavia autoan igo daitezke, urtero maiatz bukaeran irekitzen badituzte ere. Gavia bera maiatzaren 28an ireki zuten; adi egon behar da irekiera datekin. Mortirolo mitikoa ere Bormiotik 30 kilometro dago, eta haiek baino gertuago bi irteera interesgarri: Laghi di Cancano eta Livigno. Cancano lakurako igoera sigi-sagatsua ikusgarria da Torri di Fraele zaintza dorreetatik. 1391. urtean eraiki zituzten, 1.930 metrora, bailaratik etor zitezkeen inbasioak zaintzeko. Dorreetatik Livigno herriko bailara sumatzen da iparrerantz. Europan garaien dagoen herria da Livigno, 1.800 metro pasara, eta “Tibet txikia” moduan da ezaguna, bere edertasunagatik. Zerga sistema berezia du, eta jende asko erosketak merkeago egiteko asmoz joaten da bertara. Kirol talde profesionalek ere bertan egiten dituzte denboraldiaurreko prestakuntzak.

CORTINA, DOLOMITETAKO BEHATOKI Bormiotik Cortinara 200 kilometro pasatxo daude, baina bideak lauwpabost ordu kenduko dizkigu, Alpeak eta Dolomitak zeharkatu behar ditugulako. Stelvio igo behar da, Bolzano hiriko eskualde populatua zeharkatu, eta, ondoren, Val Gardena

Erreportajea irekitzen duen argazkian, Torre di Fraele, Cancanoko lakuari ateak zabaltzen. Lerro hauen gainean, herriz, Giroak ezagun egin duen Stelvio handia, elurtuta, eta Tre Cime di Lavaredoko igoerak, baita Braieseko lakua, Dolomitetako lekurik erakutsienetako bat.



Lerro hauen gainean, Misurinako lakua, Tre Cimera bidean. Alboan, aldiz, Bormioko harbideak eta bi mendi-aterpe ezagun. Gaviako mendateko Rifugio Bonetta eta Tre Cimeko edozein ibilbide egiteko abiapuntu den Rifugio Auronzo.



ikusgarritik, Gardena eta Valparola mendate dotoreak igo, biak bi mila metrotik gorakoak. Eguraldi onarekin bidaia bera plazer ikaragarria da, baina lainoa eta euria egokitzen badira, bidea nekosoa egiten da oso. Mirariak existitzen dira, baina, eta haizeak lainoak eta euria eraman ditu, justu Cortina d'Ampezzora iritsi baino kilometro batzuk lehenago.

Han agertu da begi aurrean Dolomitetako erreinua, eta ongi etorria eman bisitariei: Cinque Torri mendi berezia, bere bost gailurrekin, Tofane di Mezzo ezaguna, Monte Pelmo, Cristallo, Soriapis eta Antelao, Cortinako bailara ederra inguratzen duten 3.000 metrotik gorako erpin eta orratz multzo ikusgarriak. Txoko hartara lehen aldiz hurbildu diren lagunak aho bete hortz geratu dira, hitzik esan ezinik. Mendiek hitz egingo balute, ez lukete hainbeste edertasun azaltzen asmatuko. Cortina marrazki bizidunetako tokia baita. Margotzaile bati bere ametsetako paisaia marrazteko eskatu eta nahieran mendiak, belazeak, zuhaitzak eta herrixkak jartzearen parekoa. Zoragarria hizki larrietan. Cortinak ñabardura bakarra du. Garestia da, Italia, Austria eta Alemaniako aberatsak erakartzen dituen tokia, eta poltsikoa ere kexuka sumatuko duzu txanponak neurrian erabiltzen ez badituzu.

Cortinan nahieran ibil zaitezke oinez, Tre Cime di Lavaredoko edozein zirkuitutan, Cortina inguruko via ferrata-tan. Errazak daude, zailak, denetarik. Bizikletan edo motorrean inguruko aldapatzarrek igo ditzakezu: Falzarego, Giau, Tre Cime, Valparola, Pordoi, Sella, Val Gardena, Marmolada, San Pellegrino... Ehunka zikloturista eta motorzale ikusiko dituzu errepidean gora eta behera.

Eta inolako ahalegin fisikorik egiteko gogorik gabe baldin bazoaz ere izanen duzu zer ikusi eta zer gozatu. Honatx hiru aukera: Braies lakua, Alpe di Siusi eta Italiako Giroa. Braies lakua Cortinatik 45 kilometrora dago (Pragser Wildsee alemanez), 1.500 metrora, eta Seekofel edo Croda del Becco mendiaren magalean (2.810 metro). Ikaragarri ederra da, ordenagai-luak pizten direnean begi aurrean agertzen den argazki dotore horien parekoa, baina benetakoa. Merezi du maiatzean joatea, eta arratsean, bestelakoan jende oldea biltzen baita han.

Alpe di Siusi da ezagutu beharreko beste txokoa, hau ere Cortinatik 70 bat kilometrora. 1.650 eta 2.300 metroen artean dagoen goi ordokia da, belaze orlegiz zipriztindua, eta hainbat mendi dotorek inguratzen dutena, zaindari: Sella mendiak (3.152 m.), Sassolungo, Catinaccio d'Antermoia (3.002 m.), Scillar... Gune babestua da, eta goizeko bederatzietatik arratseko bostetara ezin da autoz igo; oinez, bizikletan edo funikular batean egin behar da joan-etorria.

Eta bien tarteko bat. Bizikleta gustuko baduzu, eta Dolomitak maiatzeko azken astean bisitatzen badituzu, Italiako Giroa gertu izango duzu. Proba horretan ziklista profesionalak zure pare sufritzen ikusiko dituzu Marmolada mendatearen moduko menditzarretan, eta egun-pasa bikainak egiteko aukera izango duzu txirrindularitza zalez inguratuta, horietako asko euskaldunak. Aukera bat edo beste izan, joan Dolomitetara. Lotuko zaituzte betirako.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Bormio eta Cortina d'Ampezzo Italiako Alpeetan daude. Cortina, zehatz, Dolomitetan, Italia ipar-ekialdean, Suitza, Austria eta Esloveniako mugatik gertu.

NOLA IRITSI

Hegazkinean joatea da erosoena. Milano, Bergamo eta Venezia dira gertuen dauden aireportuak. Milanotik Bormiora 200 kilometro daude, Cortinara 450. Furgonetan, karabanan eta beste ere joan daiteke Euskal Herritik, baina kasu, 1.500 kilometro luze dira, gero han egingo direnez gain. Etxera autoan edo furgonetan bueltatu behar izatea oso nekosoa bilaka daiteke.

EZAUGARRIAK

Bormioko Alpeak garaiak dira; ia 4.000 metroko mendiek inguratzen dute herria. Paisaiaren ikuspuntutik, Dolomitak ikusgarriagoak dira, askoz harritsuagoak, eta desnibel handiagoko mendi puskek. Eskualde gutxi egongo dira munduan Dolomitak bezain ederrak.



San Martin irla, paradisua erdibituta

Testua: **Urtzi URRUTIKOETXEA** Argazkiak: **U.U. eta Getty**





Karibeko altxorretako bat da, perla ñimiño osatutako mosaiko baten erdian. Antilla Txikietako txokorik txikiena izateaz gain, San Martin irla bera ere bi zatitan banatzen da, duela ia 400 urtetik. Alde bakoitzak bere nortasun eta izaera dauka eremu urri horretan, baina baita batasun nabarmen bat ere. Izan ere, aspaldi zatitu zuten uhartea, baina irlan bizi direnentzat oso urrun dago Europa, 2017ko Irma urakanean ikusi zuten legez; mugaz bestaldeko sanmartindarrak, berriz, bertan zituzten, txikizio berbera jasan berri. Bost urte geroago, eta pandemia bat tartean, berriz ere altxatu da uhartea.



**Irla era baketsuan
banatu ostean, erdia
Frantziaren menpe
geratu zen eta beste
erdia, Herbehereen
menpe.**

San Martin da euskaraz, Saint Martin frantsesez, Sint Maarten nederlanderaz, eta ingelesezko liburuxketan St Martin / Sint Maarten ageri da. Bi izeneko izen bakarra, irlaren zatiketa eta nortasun bikoitza azaltzeko. Soualiga edo “Gatz Lurralde” izena eman omen zioten arawak biztanleek, baina europarrak iritsi zirenerako, karibe indiarrek ziren nagusi irlan. Kristobal Kolon 1493an, bigarren bidaian, iritsi zen Antilla Txikietara, azaroaren 11n, San Martin egunez, hortik egungo izena. Espainiarrek, ordea, urre-gose izanik, ez zioten jaramonik handirik egin, XVII. mendean Herbehereak, Frantzia, Ingalaterra eta Espainia bera uharteon kontrola-
gatik borrokan hasi ziren arte.

Espainiarrek alde egitean, frantses eta nederlandar kolonoak iritsi ziren. Amsterdamentzat garrantzitsuak ziren San Martineko gatzagak. Hasierako liskarren ondotik, irla era baketsuan bereiztea erabaki zuten, Concordia hitzarmenaren bidez. Hala, 1648tik dago zatituta San Martin: irlaren 87 kilometro koadroetatik erdiak baino gehiago, 53, Frantziaren menpe daude, Herbehereen menpekoak 34 kilometro koadro dira, baina biztanle gehiago dituzte, 41.000 eta 32.000, hurrenez hurren. Zergatik duen zati batek besteak baino azalera handiagoa? Frantsesen aldean gustura kontatzen duten kondairak dioenez, irla erdi bana egitea adostu zutenean, alde bakoitzeko






ibiltari bat hautatu zuten; irlaren punta banatan oinez abiatu (debekatuta arineketan joatea) eta biek topo egiten zuten lekuan zatitu omen zuten lurraldea. Bistan da frantsesa urrunago iritsi zela; ardoa edan zuela diote San Martin iparraldean, nederlandarrak jenever (Herbehereetako ginebra) irentsi omen zuen artean. Hegoaldean ez dute hain gustuko kondaira, bistan da. Batzuek diote frantsesak korrika ere egin zuela; besteek, kondaira hutsa dela, eta gerora ere muga behin eta berriz lekuz aldatu zela gogorarazten dute.

HEGOALDE KOMERTZIALA Erraz uler liteke, beraz, txikiena eta pila-tuena izatea Sint Maarten, nederlandar zatia. Bertan dago aireportua eta bertara iristen dira turistaz betetako kruzeroak ere. Hala, Philipsburg hiriburua uharteko gune turistikoa da, hotel handien eta kasinoen lekua. Gau giroa eta ronez osatutako koktelak nahi dituztenentzako txokoa, nolabait esateko, estatubatuarragoa da. Bai, ingelesez egiten dute Karibeko irla nederlandarretan; kale nagusiak Voorstraat eta Acherstraat izena izan arren, sarritan Front Street eta Back Street deitzen zaie. Goienkale eta Barrenkale, gutxi gorabehera.

Inguruotan eta Wyther plazan etxe kolonial koloretsuak daude, eta beti dabil jende asko, hondartzara bidean edo erosketetan. Bitxi-denda asko ere badaude, Herbehereetako tradizioa eta Karibeko bazterrotako luxua lotuz. Luxu hori, beti, bertako biztanle askoren pobreziaarekin kontrastea dator. Baina duty free estatusak erosketarako txoko kuttun egiten du Sint Maarten zenbait bidaiarientzat. Ez da harritzekoa, beraz, Antilletan

Sint Maarten-en, irlako nederlandar zatian, etxe koloretsuak daude. Hona etortzen dira turista gehienak ondo pasatzera, giroa dagoelako.



**Nahiz eta
mendirako
planarekin joaten
diren bisitariak
gutxi diren, Paradis
tontorrera igotzea
merezi du inguruko
irlak ikusten
direlako bertatik**

gehien eraiki den lekuetako bat izatea, Great Bay eta Simpson Bay inguruan batez ere. Azken horretan, hareatza aireportuko pistaren ondo-ondoan dago, eta aldameneko Mahe Beach-en bezalaxe, ikusgarria da (beldurgarria, esango luke baten batek) nola lur hartzen duten hegazkinek. Hondartzetatik urrunduta, gune natural gehienak zati frantsesean egon arren, Sint Maarten Park dago, Karibeko zoologiko handienarekin eta lorategi botaniko eder batekin.

Hondartzen atzean daude uharteak historian famatu zituzten gatzagak. Simpson Bayren aintziraren parean doanak, esaterako, irlako bi aldean arteko “muga” dauka erdibidean. Handik kilometro bat pasatzora, Marigoteko sarrera dago, alde frantseseko hiriburua. Saint Martin Sint Maarten baino handiagoa da eta errazagoa da hondartza galduak aurkitzea (nahiz eta Orient Beach bezalako leku ederretara jende asko joan ohi den, nahi adina ur-kirol praktikatzeko aukera baitago bertan). Friar’s Bay-k berriz, ur geldo eta lasaiak ditu, harea zuria, Karibean espero ohi den irudia, alegia. Europako leku askotan egin litekeen baina munduko bazterrotan ezohikoa den beste aukera bat ere badu Saint Martinek, hondartzetan nudismoa egiteko Karibeko ia leku bakarra baita. Kutsu europar horren adierazle, uhartearen hegoaldean ukitu nederlandarra askorik nabari ez den artean, iparralderantz etorrita frantses kutsua nabarmenagoa da, errotilazio-motan hasi eta jatetxeetaraino. Hemen ere ez da turismorik falta, baina lurralde handiagoa izanik ez dago hain pilatuta, eta paisaia aldetik ere, hondartza ederrez gain barnealde erakargarriagoa dauka.

ITSASOA ETA OIHANA Marigoten hainbat taberna, Aingira uharteko ferrya eta azoka interesgarri bat daude. Goizean goiz hasita eta arratsaldera arte, leku bizi honetan turistentzako artisautza-lanak saltzen dituzte; asteazken



eta larunbatetan egoten da bertako girorik bereziena, arrain-azoka ere egi-
ten baita, eta sanmartindar asko datoz bertara. Aurreraxeago Marigoteko
itsas-portua dago, yate garesti asko amarratuta dituela; arropa eta bitxiak
saltzen diren saltokia ere bada marina. Aldamenean, uharteko museo ar-
keologiko txiki bezain interesgarria dago (Philipsburg-en ere beste museo
txiki bat dago); irlako jatorrizko biztanleen historia ezagutarazten da bertan
hainbat lanabes eta aurkikuntza arkeologikoren bidez, baita hurrengo men-
deetako historia kolonial bitxi zein tragikoa ere, esklabotzaren ondorio.

Egia da gutxi direla bazterrotara mendiko planekin datozenak, baina, ahal
izatera, merezi du tarte batez kostaldea utzi eta ber-bertan dagoen oihan
tropikalaz gozatzea, Paradis tontorreraino igotzeko, esaterako. Handik goi-
tik, irlaren alde guztiak ikusteaz gain, inguruko uharteak ere ageri zaizkigu
begien aurrean: iparraldean, Aingira, eta hego eta ekialdean, urrunago, ai-
replanoz edo ontzi-bidaian ere irisgarriak diren Saba eta Statia nederlan-
darrak eta St Barts frantsesa. Loterie Farm izeneko naturagunetik abiatzen
dira irla barnealdeko ibilbideak. Behera jaitsitakoan, leku atseгина da zer-
bait hartzeko eta bertako igerileku naturaletan dzangada bat egiteko.

Errepide nagusira itzulita, Grand Casera iristen da berehala. San Martineko
hiriburu gastronomikoa da. Hondartza luze baina estu batean, badia ede-
rraren parean, daude jatetxeak, eta itsasoko olatuek ere ekarpena egiten
diote esperientzia gastronomikoari. Edozelan ere, irlan badira hareatza
ederragoak. Orient Bay edo Baie Oriental-era heltzeko errepidea irlaren
barnealdetik doa. Kostaldetik jarraituz gero, berriz, bihurgunez bihurgune
Anse Marcel eta Cul de Sac badia txiki bezain atseginak daude; irlako itzu-
lia zertxobait luzatzeko aproposak dira eta jende gutxiago egon ohi den
txoko ederrak dituzte.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

San Martinek bi zati eta bi
aireportu ditu; nagusia
hegoaldean dago,
Herbehereetako aldean, eta
bertara iristen dira Ipar
Amerikako eta Europako
hegaldiak. Antilla Txikietako
irletara doazen makina bat
hegaldi ere badaude. KLM/Air
France konpainiarekin erraz irits
daiteke Euskal Herritik, bai
Bilbotik bai Biarritzetik abiatuta,
Parisen edo Amsterdamen eskala
eginda.

NOLA MUGITU

San Martin txikia da, 30
kilometroan egiten da irlako
itzulia, eta azken txokoraino
joanda ere 50 dira gehienez.
Autoak askatasun handiagoa
eman lezake, baina trafikoa ere
ez da beti erraza ez alde batean
ez bestean. Scooter motorrak ere
har litezke, eta badira oso merke
bidaiatzea ahalbidetzen duten
autobusak ere irlako herri
nagusien artean. Oinez heltzeko
ere, ez daude urrun hainbat leku,
eta bizikletaren aukera hor dago,
trafikoa aintzat hartuta betiere.

OSTATUA

Hotel asko daude, Herbehereen
menpeko hegoaldeko tarte
batean pilatuta horietako asko.
Frantziako aldean ere ez da falta
ostaturik, baina tarte handiagoa
daukate. Gehienak hondartza-
hotel garestiak dira, baina badira
100 dolarretik beherako bakan
batzuk ere.



Arte klasikoaren hastapenetara bidaia

“Venus Milokoa”, “Afrodita eta Dione”, “Moises”, “Hermes Dioniso umearekin”, “Samotraziako Garaipena”, “Laokoon eta haren semeak”, “Belvedereko tortsoa”... Bilboko Berreginen Museoak Europako hainbat museotan ikusgai dauden klasiko ezagunen erreplikak biltzen ditu, kalitate handiko eskulturak denak.



**Aurreko orrialdean,
«Moises» eskultura, eta
lerro hauen alboan,
Berrengin Museoko
atari ederra, Bilboko
Alde Zaharrean.
Hurrengo orrialdeetan,
beste artelan handi
batzuen erreplikak.**

Testua eta argazkiak: **Eli TXAPARTEGI**

Bilboko Berrengin Museoa berezia da oso. Sarrerako atea zeharkatu aurretik ere –San Frantzisko kaleko 14. zenbakian– bisitariak sumatzen du ez dela edozein museo, fatxada bera, neogotiko estilokoa, oso deigarria baita. Izan ere, eraikin historikoa da, Mariaren Bihotza eliza izandakoa, XIX. mendearen amaieran eraikitakoa. Eta kanpoaldeko itxurak bisitaria harritzen badu, are gehiago barrualdean aurkituko duenak: zutabe zuri altuak, gela gardenak, argi naturala iragartzen duten beirate koloretsuak... Eta, noski, giro bero eta atseginez inguratuta, zenbait mailatan estrategikoki sakabanatutako eskulturak. Erreplikak.

Hamar urtez itxita egon ondoren, 2006ko azaroan ireki zuten berriro museoa egungo egoitzan. Bizkaiko hiriburuko zaharrenetakoa da. Duela 90 urte sortu zen, herriko kultura-eskaintza osatzeko eta Arte Ederretako Arte eta Lanbide Eskolako ikasleen ikaskuntzan laguntzeko. Egun, Europako



museo onenen artean dago bere esparruan, ikusgai dituen erreprodukzioen aukeraketa eta kalitateagatik, batez ere; hau da, garai guztietako eskultura-maisulan handien erreplika zehatzak biltzeagatik.

ZENBAIT KOKAPEN Museoa, egun, Mariaren Bihotza eliza izandakoan dago kokatuta, baina aurretik hainbat tokitan izan da; besteak beste, Berastegiko Eskolan –1930-1955– eta San Frantziskoko Eskoletan.

Santa Maria eliza erabat zaharberritu zen, eta barrualdea goitik behera diseinatu, betiere kultur erabilera berria kontuan hartuta. Lau solairu ditu. Hirutan erakusketa iraunkorra dago eta sotoan, berriz, tailerrak eta bes-telako jarduerak egiten dira, oro har, aretoetan bildutako obrarik adierazgarrienak ezagutarazteko. Bisita gidatuak, aldi baterako erakusketak eta hitzaldiak antolatzen dituzte, baita “Obra bere testuinguruan” ere, aldeztu aurretik aukeratutako artelan bat sakon aztertzen duen ekimena. Horrez gain, museoak bestelako ekitaldiak ere antolatzen ditu, hala nola kontzertuak eta moda desfileak, betiere San Frantzisko auzoa dinamizatzerantz bideratuta.

BILDUMA IRAUNKORRA Bilduma iraunkorrek Artearen Historiaren ibilbidea eskaintzen du, munduan sakabanatutako hainbat museotan dauden artelanen kopia bikainen bitartez: Vatikanoko Museoa, Berlingoa, Florentziako Akademia, Louvre, British Museum.... Arte klasikoaren hastapen-tara bidaiatuko du bisitariak, baina, noski, bidaiatu beharrik gabe.

Museoaren sustatzaileek piezen kalitatea lehenetsi nahi izan zuten, kopiak pixkanaka-pixkanaka enkargatzea erabaki zuten. Horrela hasi ziren maisulanak iristen; honako hauek, besteak beste: “Verrocchioren David”, Medici familiaren enkarguz brontzez egindako David gazte bat, garaipen-posean, Goliaten burua oinetan duela; “Arantzadun umea”, Erromako Museo Kapitolinoetan dagoen Antzinako Greziako brontzezko pieza; eta “Belvedereko Tortsoa” delakoa, Atenaseko Apolonio atenasta-





rraren sinadura duena eta Vatikanoko Museoan ikusgai dagoen gizon-
ezko biluzi baten zati dena. Bildumen balioa jatorrizkoen lehen kopiak
izatean datza.

Museora hurbiltzen denak eskulturen artean pasea dezake norabide fin-
korik gabe, baina pieza batzuek arreta berezia eskatzen dute, minutu ba-
tzuk gehiago, geldialdi lasaiagoak. Horien artean dago “Venus Milokokoa”,
antzinako erromatar eskulturarik ospetsuenetakoa, edertasun klasikoaren
paradigma bihurtu dena. Kopia Louvre Museotik dator.

Arreta berezia merezi du, halaber, “Samotraziako garaipena” eskulturak,
Louvreko jatorrizkoaren kopia. Nike garaipenaren jainkosa greziarrari
gorputzaren zatiak falta zaizkio, puskaka aurkitu zutelako. Aipatzekoa da,
bestalde, “Moises”, Erromako San Pietro in Vincoli elizan dagoena. Diru-
dienez, profetari buruz Bibliak egiten duen deskribapenari jarraitu zion
zehatz-mehatz Michelangelok, irudiak bi adar baititu. Kopia tailer erro-
matar batek egin da.

KOPIA GEHIAGO “Laokoon eta haren semeak” eta “Diskoboloa” ere be-
reziak dira. Lehenak Laokoon apaiz troiarra eta bere bi semeak irudikatzen
ditu, Poseidonek bidalitako bi sugek erasota. Bilboko kopia Vatikanoko
Museoan egin zen eta egun Greziako Barrokoaren adibiderik onenetako-
tzat jotzen da. “Diskobolo”-ri dagokionez, berriz, kopia erromatarrek baino
ez dira kontserbatzen; Bilboko British Museum-eko “Townley diskobo-
loa”ren kopia da. 1930ean Benito Bartolozziren tailerrean egin, disko jaur-
titzaille bat irudikatzen du.

Museoaren muina erakusketa iraunkorra den arren, bertako arduradu-
nek Mariaren Bihotza plazako aztarnategirako bisitak ere kudeatzen di-
tuzte, benetako altxorra gordetzen baitu: XV. mendearen amaieran
eraiki eta XIX. mendean eraitsi zen San Frantzisko Komentu zaharraren
aztarnak.



Oiongo topaketa enogastronomikoa

UZTAILAK 22 ETA 23

Oionek lekukoa hartu dio Bastidari, V. Topaketa Enogastronomiko Jasangarria antolatzeko. “En torno a la mesa” izena daraman festak, Arabako Errioxako ardoteziak janari eta edari onen inguruan batuko ditu. Topaketa hiru zatitan banatuta egongo da. Mahai Experience proposamenak (uztailak 22 eta 23) inguruko ardoak plater fin eta musikarekin uztartuko ditu; kalitatezko produktuekin egindako pintxoak izango dira, Raul Romo Laser Sax saxofonistak jotzen duen bitartean. Uztailaren 23an, gainera, Valdemar upategian, iluntzerako afari berezia prestatu dute, non Eduardo Moreno Quartetek jazz kontzertua eskainiko duen.

Azoka enogastronomikoan (uztailaren 23an, goizez) doako ardo eta janari dastaketa izango da. Bertako produktu ekologikoak erosteko aukera ere egongo da: txorizoa, frutak eta barazkiak, marmeladak eta pateak, oliba olio birjina, Idiazabal gazta, gildak eta Ibarako piparrak, euskal pastela, etxean egindako erroskillak, ogia, gazta mota desberdinak eta txokolatea.

Azkenik, egun berean, Guardia eta Oion elkartzen dituen eta mahastien artean igarotzen den GR-38 ibilbidea oinez egin ahal izango da (4 ordu - 17,5 km). Hasieran Arabako Errioxako jaki eta edariak dastatu ahal izango dira, eta bide erdian ere geldialdi bat egingo da Gomez de Segura upategian. Ibilaldia Guardian hasiko denez, hara joateko Oionetik autobusa jarriko dute 17.45ean, eta oinez 18.15ean hasiko dira.

31 talde, udako Hatortxu berezian

UZTAILAK 29 ETA 30

“Zerua (hel)muga” lelopean, 31 talde ari-tuko dira Hatortxu Rock-ek antolatu duen edizio berezian, azken bi urteetan egin ezin izan diren ekitaldien ordainetan. 18.00etan hasiko da jaialdia. Sarrerak jaialdiaren webgunean eskura daitezke: Bi eguneko bonuak 65 euroan, eta ostira-leko zein larunbateko sarrerak, aldiz, 35 euroan. Huntza, Gatibu, Deskontrol, Zoo, Brigade Loco, Skabidean, DJ Plan B, Anari, Zelanda, Gilipojazz, Sua, Badalonians Sound ft Harny Roots, Pleura, ETS, The Baboon Show, The Lio, Delirium Tremens, Zetak, Antton Telleria, Ibil Bedi, Hammond York, La Mare, Lukiek, Sleketah Stepi, CRIM, Non Servium, Stay Homas, Herdoil Rotten XIII eta Green Valley izango dira.



MUNDUAN ZE HAR OLATU BILA

“TransWorld SURF” aldizkari-ko editoreek ezagutu dituzten munduko olaturik ederrenak batu dituzte “Surf. Las 100 mejores olas” liburuan. Klasiko ezagunak zein leku sekretuenak agertzen dira zerrenda oparo horretan, urteetan batutako eskarmentuaren fruitu dena.

Casey Koteen editoreak idatzi ditu testuak eta Aaron Checkwood argazkilariak ekarpena egin du irudiekin. Euren aukeraketan ez dituzte kanpoan utzi Biarritz eta Mundaka, Indonesia edo Australiako hainbat lekuren parean kokatuz. Surflariak ez dira beren txoko kuttunak ezagutarazi zaleak; beraz, hasiberrientzat ez da erraza izaten olatu apartak aurkitzea. Liburu honen xedea surflariei bidaia prestatzen laguntzea da, esperientzia ona izan dezaten.

Surf. Las 100 mejores olas
Casey Koteen eta Aaron Checkwood («TransWorld SURF»)

Lunwerg Ed, 2014
240 orrialde. Gaztelania



Kantua bihotzean, Errobiko festibalean

UZTAILAREN 15ETIK 24RA

Formula berriarekin heldu da Errobiko festibala aurten. Uztailaren 15etik 24ra izanen da, eta aurreko asteburuan, 15 eta 16an “aitzin-jaialdia” ere gehituko zaio. “Kantuen beharra” lelopean heldu da 2022ko edizioa Itsasura: «Betidanik garrantzia eman diogu kantuari, baina ez dugu sekula hainbeste horrela aipatu, eta garrantzitsua iruditzen zitzaigun gure oinarrietatik abiatzea», esan dute arduradunek.

83. Musika Hamabostaldia

ABUZTUAREN 2TIK 27RA

Donostiako Musika Hamabostaldia-
ren 83. edizioak iraungo duen lau as-
terako 70 kontzertu eta ikuskizun
baino gehiago antolatu dituzte, baita
Organo Erromantikoaren 38. Nazioar-
teko Ikastaroa eta beste hainbat ekin-
tza paralelo ere. Programazioa
osatzen duten zikloek nagusiki Do-
nostia izango badute ere egoitza, Gi-
puzkoako beste hainbat herritan,
Arabian, Nafarroan eta Iparraldean ere
izango dira ekitaldiak.



Inzerkiko erlauntzean

burrubarik ez

Testua: **Ane IPARRAGIRRE** Argazkiak: **FADEL SENNA (AFP)**

Munduko erlauntza kolektibo tradizionalik zaharrena eta handiena denez, Marokoko Inzerki herriko biztanleak beti egon dira harro. Alabaina, egun oso kezkatuta daude, udaberrian ez dutelako burrunbarik entzun, ez behintzat aurreko urteetan bezainbeste. Koloniak sikatzen ari omen dira lehortearen ondorioz. Eta erleak, hiltzen.



Inzerkiko erlauntzaren egoera larriak biztanle gehienak kezka-tzen ditu, baina horietako batzuk kaltetuago sentitzen dira. Brahim Chatoui erlezaina da horietako bat. Kexu da bi hilabete eskasean erlekumeen herenak galdu dituelako. «Urte sasoi honetan, eremu hori erlez beteta egon beharko litzateke; gaur egun, ordea, isiltasunak ordezkatu du burrunba», esan du eguzki kiskalgarriaren pean izerditan blaitutako erlauntzak ikuskatzen dituen bitartean. «Gaur erritmo beldurgarrian ari dira hiltzen».

Afrika iparraldean polinizatzaile kritikoen heriotza masiboek era kezka-garrian gora egin dute; «Kolonien kolapsoaren desordena» du izena fenomenoak. Mundu osoan gertatzen ari da. Adituek diotenez, erleen bat-bateko heriotzak naturaren suntsipenarekin eta pestiziden erabilera neurrigabearekin lotuta daude askotan.

Alta, Marokoko agintarien arabera, horren arrazoia beste bat da: 40 urtean herrialdea astindu duen lehorterik larriena, erleek elikatzeko behar dituzten landareak nabarmen murriztu dituen.

ARGANERAIE BIOSFERA ERRESERBAN Inzerkiko erlauntza kolektiboa Arganeraie Biosfera Erreserbaren bihotzean dago, mendi-magal eguzkitsu



Inzerkiko erlauntzak. Bertako 80 familia inguruk izan dituzte erleak noizbait, baina egun 20k besterik ez dute ogibide hori.



batean, Unescok babestutako 2,5 milioi hektareako eskualdean, Rabat hiriburutik 415 kilometro hego-mendebaldera. 1850. urtean eraiki zuten herritarrek.

Erlauntza ikusgarria da, harrigarria, benetan: bost pisuko egitura du, zurezko eskora eta lokatz lehorrez egina, mendi-mazelan behera. Konpartimentu bakoitzak zumezko erlauntza zilindriko bat du, lurrez eta behi simaurrez egindako nahasketa batekin estalia.

Antonin Adam erleen gaian adituak ere uste du mundu mailan gertatzen ari den lehortea dela egungo egoeraren arrazoi nagusia, baina ustezko beste zioak ere gehitzen ditu: erleek gaixotasunen aurrean duten kalteberatasuna, artzaintza nomadaren praktika kaltegarriak, nekazaritza intentsiboa eta herrialdeak ezti-ekoizpena handitzeko duen grina.

Edonola ere, Inzerkikoa ez da arazoak dituen erlategi bakarra. UAM Marokoko erlezainen sindikatuko kide Mohamed Choudanik argi utzi nahi du krisiak eragin zuzena izan duela herrialde osoko erleen populazioan. Iazko udan, adibidez, Marokoko 36.000 erlezainek 910.000 erlauntz ingururekin egiten zuten lan, 2009an baino %60 gehiagorekin, datu ofizialen arabera. Baina, Choudaniren esanetan, abuztutik Beni Mellal-Khenifra eskualdean bakarrik 100.000 kolonia galdu dira.

EZINBESTEKO POLINIZATZAILEAK Erleak zein beste polinizatzaile batzuk ezinbestekoak dira loredun landare eta elikadura-labore gehienen ugalketa-prozesuan. FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak behin eta berriz azpimarratu izan du erleek «funtsezko zeregina» dutela «pertsonak eta planeta osasuntsu mantentzeko». NBEk, berriz, beharrezkoak direla dio «goraka ari diren ingurumen-arriskuen zaindari gisa».

Inzerkiko biztanleen iritziz, erlauntzen arazoak, hondamendi ekologikoa eta ekonomikoa ez ezik, herentziaren krisia ere badakar. Ildo horretan, Chatouik gogorarazi du biztanle askok ezin dietela aurre egin galerei. «Familia batzuek erlezaintzari uko egitea erabaki dute, besterik gabe», aitortu du.

Gainera, Inzerkiko erlauntzen egiturak arazoak ditu. Zati batzuk, ondare nazional gisa katalogatu berri izan direnak, hondoratuta daude. Hassan Benalayat geografoaren iritziz, klima-aldaketaz gain, hainbat faktorek eragin dute utzikeria; besteak beste, nekazaritza modernoak eta mendi-eremuetakako exodoak. Herrian 80 familia inguruk erleak hazi dituzte noizbait. Gaur egun, aldiz, 20ra ez dira iristen. «Premiazkoa da ondare aberats hori bizirik mantentzea», ohartarazi du.

Egoera larriaren aurrean, Chatouik eta beste bizilagun batzuek elkarte bat sortu berri dute egitura berrezartzeko. Horrez gain, usain-belarrak landatu dituzte lurraren idortasunari eusteko eta, ondorioz, erleek hobe onar ditzaten baldintza bero eta idorrak. «Egoera kritikoa da, baina ez dugu horregatik amore emango», ohartarazi du Chatouik. Orain erlategia birgaitzen saiatzen ari dira. «Helburua ez da ezti ekoiztea, baizik eta erlauntzak babestea eta erleen biziraupena ziurtatzea urte hobeak iritsi bitartean».

**40 urtean Maroko
astindu duen
lehortea erleek
elikatzeko behar
dituzten landareak
murriztu ditu**

BERTIGOA, 95 METRORA ZINTZILIK

Txekiar Errepublikan dago Sky Bridge 721 zubia, oinezkoiei zuzendutako atrakzio turistiko bihurtua. Mota horretako munduko zubirik luzeena da, 721 metrokoa, eta 95 metroko altueran zintzilik dago, bertigoa eragiteko nahikoa. Dolní Morava goi mendiko geltokian kokatua, Orlické eta Jeseníky mendiak elkartzen ditu. Beldurra gainditzea lortzen duenak sekulako ikusmira izango du bertatik. Ibilbidea Slamenka Chalet mendi-aterpetik hasten da, Chlum Hill ibilbide interpretatiboaren ondoan. Zubitik baso erraldoia ikusi ostean, errealitate areagotuari esker ingurumena zaintzeari buruz eta lekuaren historiaren inguruan ikasi ahal izango dute bisitariak, bereziki haurrei zuzendutako joko baten bitartez.

Zubiaren egitura sei soka nagusiz eta beste 60 finagoz osatuta dago. Urteak eman zituzten eraikitzen iaz zabaldu zuten arte, eta 8 milioi euroko inbertsioa izan du. Gurutzatu ahal izateko erreserba egitea ezinbestekoa da (14 euro), baina haizete bortitzak badaude, bertan behera uzten dute. Bisita osoak 2 ordu inguru irauten du. *Michal*

CIZEK | AFP



SLACKLINE-ARI ESKER, ZERUA PAUSOZ PAUSO ZEHARKATZEN

Nathan Paulin funanbulista frantsesak maiatzean Mont-Saint-Michel abadiatik espresuki horretarako prestatutako garabi bateraino zeuden 2.200 metroak *slackline* batetik oinez igaro zituen. Bi ordu eman zituen horretan. Ez zen amaierara iritsi eta arnesetik zintzilik gelditu bazen ere, bere aurreko marka gainditu zuen –2017ko ekainean Cirque de Navacellesen 1.662 metro ibili zituen–. *Damien MEYER* | AFP

CLAUDIA CARDINALE KALEA

Claudia Cardinale aktorea italiarra da, baina Tunisian jaio zen, gurasoak Siziliakoak izanik Goleta herrian bizi baitziren, beste milaka siziliar bezala. Auzoari “Sizilia txikia” deitzen diote ordutik. Sergio Leone, Luchino Visconti eta Federico Fellini zuzendari italiarren musa izandakoak haurtzaroa Tunisian eman zuenez, bihotza erdibituta dauka, eta bere sorterriak ez du hori ahazten. Hala, Goletan omenaldia egin diote bere izena kale bati jarritz. Ospatzeko, bere filmak proiektatu zituzten eta erakusketa bat egin zuten. Feithi BELAID | AFP



APPLE ORDENAGAILU ZAHARREN MUSEOA

Egun merkataritza gune bilakatutako Varsoviako Norblina lantegi zaharrean ireki ditu ateak Poloniako Apple Museoa. Bertan, enkantean lortutako 1.600 produktu ikus daitezke, tartean Lego piezaz egindako irudiko ordenagailua. Xedea Apple enpresaren arrakasta eta porroten bidez informatikaren historia kontatzea da. Wojtek RADWANSKI | AFP



EUKALIPTOA, LEKUKO ESPEZIEN KALTE NONAHI

Eukalipto landaketa masiboak arazoak sortzen ari dira mundu osoan zehar. Brasileko Minas Gerais estatuko Setubinha eremuan lekuko espeziez osatutako basoen deforestazio izugarria ematen ari da; zuhaitzak moztzen ari dira eukaliptoak landatzeko, azkarrago hazten direlako. Kalteak itzelak dira bertako ingurumenarentzat. SOS Mata Atlantica | AFP



HAMAR URTE PREZIPITAZIO ESKASIAREKIN MEXIKO BERRIAN

Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldea jada hamarkada bat bete duen lehortea sufritzen ari da. Lehortek aztertzeko monitoarearen arabera, Mexiko Berriaren %90 dago idorte egoeran. Prezipitazio eskaseko garaiak ziklikoak diren arren, adituek diote «megalehortearen» arrazoa erregai fosilen gehiegizko erabilera dela, hau da, gizakiak sustatutako aldaketa klimatikoa dagoela atzean. Etxeetako edateko ura pilatzen duten urtegien maila inoiz baino baxuago dago –herrialdeko urtegirik handiena, Mead lakua, %3lera soilik dago beteta–, eta lurra eta begetazioa hain daude lehorrak, ezen suteak gertatzeko arriskua izugarria den. Mario TAMA | AFP



BISITARIEI ONGI ETORRIA EMATEN

Budaren aurpegia Bodhi zuhaitz baten sustraien artean, zelatari, Bangkoketik gertu dagoen Ayutthaya hiriko Wat Mahathat tenpluan (1374. urtean hasi ziren eraikitzen Boromma Ratchathirat I.a erregearen aginduz). Unescok gizateriaren ondare izendatutako Budak lasai begiratzen die urtero argazkiak ateratzen dizkioten milioika bisitariei, denborak emandako babesleku ikusgarritik. Buda bitxiak bihurtu du Wat Mahathat Thaiandiako temple bisitatuena. Manan VATSYAYANA | AFP



«FOOD TRUCK»-EN JAIALDIA

Mundu osoko janaria dastatzea gustuko duenarentzat paradisu bat da Amsterdameko Westerpark ezagunean urtero maiatzean egiten den Rolling Kitchens jaialdia. Dozenaka *food truck* hurbiltzen dira bertara, parkea espezialitate desberdinak eskaintzen dituen jatetxe erraldoi eta merke bihurtuz asteburu batez: janari thailandiarra, mediterraneo, itsas-kiak, Herbehereetako produktu tipikoak, Texaseko barbakoa, koktelak, garagardoa, edari osasuntsuak... Koen VAN WEEL | AFP



ARROZAREN TENPLUA

1959ko abuztuan tifo batek 667 pertsona hil eta 1.000 desagerrazi zituen Taiwanen. Irlan inoiz gertatu den hondamendirik handiena izan zen. Uholdeak izan ziren herrialdeko alderdi askotan; esaterako, Chiayin, bereziki merkataritzan aritzen den itsasertzeko hirian. Uholdeak Wu Fu tenplu taoista harrapatu eta suntsitu zuen, eta eraikina zegoen tokian orain hondarrak besterik ez dira gelditzen, arroz zelai baten erdian. Sam YEH | AFP



SINGAPURKO LORATEGI EXOTIKO ETA ERRALDOIA

Irudiko sorgin-orratza Singapurren dagoen parke exotiko bateko biztanlea da, Gardens by the Bay. Lorategi erraldoia da, parke tematiko bat balitz bezala bisita daitekeena, non atal desberdinak dauden eta bakoitzean dagozkion landare eta loreak ikus daitezken. Bistarako gozagarri bat, dudarik gabe. Roslan RAHMAN | AFP



APOKALIPSIAREN OSTEKO BIZIRAUPENERAKO GILTZA

Lerei tiratzeko trebatuta dago "Alaska" zakurra, Longyearbyen herrian (Spitsbergen, Norvegia). Bertan dago mundu osoko 100.000 hazi gordetzen dituen bankua, apokalipsi bat egonez gero bizitza berreskuratuko luketenak. Klima baldintza gogorak dituen herrixka da, baina giro alaia du eta ez dago langabeziarik. Jonathan NACKSTRAND | AFP

La Palma

Viajes con estancia y/o
programas de senderismo

Vuelo directo desde Bilbao los sábados

7 noches.....599€ / 944€

7 noches con senderismo.....705€ / 964€

Sin gastos de cancelación hasta 40 días antes de la salida

IBILTARI

Avda Madariaga, 25.
Deusto, Bilbao
Tel. 94 4472526.

www.ibiltari.com

